## PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| PRESTAKUNTZA-MODULUA | HIGIENEA ETA ASEPSIA ILE-APAINKETAN (zeharkakoa) | Iraupena | 40 |
| Kodea | MF0058_1 | | |
| Lanbide-arloa | IRUDI PERTSONALA | | |
| Lanbide-eremua | Ile-apainketa | | |
| Profesionaltasun-ziurtagiria | Ile-apainketako zerbitzu osagarriak | Maila | 1 |
| Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza | Forma aldatzeko eta orrazten hasteko muntaketak | Iraupena | 90 |
| | Ilearen kolorea aldatzeko kosmetikoak erabiltzea | | 80 |
| | Ile-apainketako zerbitzu osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak | | 120 |

## A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0058_1 EKIPOAK PRESTATZEA, ETA ILEA ETA BURU-LARRUAZALA GARBITZEA ETA EGOKITZEA

## B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Lan-ekipoen eta -eremuen higienea, desinfekzioa eta esterilizazioa, kasuan kasu, gauzatzeko prozedurak aztertzea.

EI1.1 Garbitasun, desinfekzio, esterilizazio eta asepsiaren kontzeptuak azaltzea.

EI1.2 Ile-apainketako ekipo eta tresnetan erabiltzen diren materialak haiek garbitzeko, desinfektatzeko eta/edo esterilizatzeko metodo egokienarekin identifikatzea.

EI1.3 Neurri higieniko-sanitarioak aplikatzeak bezeroen eta profesionalen segurtasuna bermatzeko eta ingurumena babesteko duen garrantzia baloratzea.

EI1.4 Materialak eta ekipoak prestatu eta antolatzeko kasu praktikoetan:

- Ile-apainketan erabiltzen diren tresnak, aparatuak eta ekipoak sailkatzea.
- Egon daitezkeen kutsatzaile fisikoak, kimikoak eta biologikoak azaltzea.
- Erabilera bakarreko materiala erabiltzearen abantailak aipatzea.
- -Material-motaren arabera eta kutsagarritasunaren arabera, noiz desinfektatu behar den eta noiz esterilizatu behar den arrazoitzea.
- Ile-apainketan aplika daitezkeen garbiketa-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak deskribatzea.

EI1.5 Ile-apainketako ekipoak prestatzeko eta antolatzeko protokoloa azaltzea, honako hauek kontuan hartuta:

- Asepsiarako metodorik egokienak.
- Desinfekzio- eta esterilizazio-metodoen aplikazioaren sekuentziazioa eta dosimetria.
- Ile-apainketan desinfektatzeko eta esterilizatzeko erabiltzen diren aparatuak deskribatzea. Efektuak eta funtzionamendua.
- Desinfektatutako ekipoak balizko kutsatzaileetatik isolatzeko metodoak.
- Lan-ekipoa antolatzea eta zerbitzua eskaintzeko aurkeztea.

A2: Ile-apainketako zerbitzuak eskaintzean norberaren segurtasun- eta higiene-arauak eta norbera babestekoak aplikatzea.

EI2.1 Ile-apainketako zerbitzuan bezeroa eta profesionala babesteko erabiltzen diren ekipoak eta hartzen diren neurriak deskribatzea.

EI2.2 Zerbitzu-motaren arabera bezeroa prestatzeko eta babesteko prozedura deskribatzea.

EI2.3 Bezero bat egokitzeko eta prestatzeko kasu praktiko batean:

Hautatutako teknika aplikatzeko bezeroaren jarrera higieniko egokiena zein den azaltzea.

Eskaini behar zaion zerbitzuaren arabera bezeroa babesteko neurriak aplikatzea.

Hautatutako teknika aplikatzeko behar diren tresnak eta materialak prestatzea.

EI2.4 Ile-apainketako zerbitzuak eskaintzean profesionalak izan behar dituen jarrera higieniko egokiak deskribatzea, laneko arriskuak prebenitzeko araudia eta jarrera-higieneko araudia betetzeko.

EI2.5 Ile-apainketako zerbitzuetan gerta daitezkeen arrisku-kasuei erantzun ahal izateko oinarrizko ekintzak deskribatzea.

EI2.6 Profesionalaren janzkerak eta higieneak lanerako duten garrantzia deskribatzea.

A3: Ile-apainketetako zerbitzuen bezeroei onarpen-, komunikazio-eta informazio-teknikak aplikatzea.

EI3.1 Bezeroei arreta eskaintzeko egoeretan maizen erabiltzen diren komunikazio-teknikak definitzea.

EI3.2 Bezeroari hainbat komunikazio-kanalen bidez arreta eskaintzeko prozesuaren faseak deskribatzea.

EI3.3 Ile-apainketetako zerbitzuen bezeroei arreta eskaintzeko hitzezko eta keinu bidezko hizkuntza egokiena deskribatzea.

EI3.4 Bezeroak tratatzeko kontuan hartu behar diren portaera-arauak biltzen dituen zerrenda bat prestatzea.
EI3.5 Bezeroak eskatzen duen zerbitzuaren arabera ile-apainketako zerbitzu eta produktuei buruz eman behar zaion informazio garrantzitsuena identifikatzea eta prestatzea.
EI3.6 Zerbitzu eta produktuen ezaugarriak argi eta garbi deskribatzea, haien abantailak nabarmenduz eta bezeroaren premietara nola egokitzen diren azalduz.
EI3.7 Fitxa teknikoa betetzeko informazioa lortzeko galdera zehatzak egitea.
EI3.8 Bezeroaren fitxan datu pertsonalak jasotzea, teknikariak gainbegiratuta.

A4: Buru-larruazalaren eta ilearen ezaugarriak aztertzea, eta haien higienerako, egokitzapenerako eta ondoren tratatzeko kosmetiko egokienak hautatzea.
EI4.1 Bezeroa eta profesionala eskaini beharreko zerbitzuaren arabera nola prestatu eta babestu behar diren azaltzea.
EI4.2 Bezeroaren fitxan haren datu pertsonalak jasotzea.
EI4.3 Ilearen higiene-prozesuetako jarrera higieniko egokienak deskribatzea.
EI4.4 Buru-larruazala eta ilea zaintzeko jarraibideak azaltzea.
EI4.5 Buru-larruazalaren eta ilearen egoera eta mota zehaztea.
EI4.6 Goi-mailako profesional bati kontsultatzea eskatzen duten buru-larruazaleko anomaliak aipatzea.
EI4.7 Ileko eta buru-larruazaleko zikinkeriaren osagaiak azaltzea.
EI4.8 Xanpuaren eta ile-egokitzailearen jarduera-mekanismoak eta konposizioa azaltzea.

A5: Ilearen higiene- eta egokitzapen-teknikak bezero bakoitzari egokituz aplikatzea, segurtasun-baldintza egokietan eta emaitza estetiko optimoekin.
EI5.1 Ondoren eskaini beharreko edo aurretik eskainitako zerbitzuaren araberako higiene-teknikak deskribatzea.
EI5.2 Ilearen egokitzapen-teknikak azaltzea.
EI5.3 Kolorazioetako, dekolorazioetako eta forma-aldaketa iraunkorretako ilearen higiene-prozesua azaltzea.
EI5.4 Kolorazioetako, dekolorazioetako eta forma-aldaketa iraunkorretako egokitzapen-prozesua deskribatzea.
EI5.5 Ile-higienean bezeroa eta profesionala babesteko erabiltzen diren ekipoak eta hartzen diren neurriak deskribatzea.
EI5.6 Ilearen higiene-prozesua aplikatzeko bezeroa prestatu eta egokitzeko prozedura azaltzea.
EI5.7 Ile-higienearen kasu praktiko batean:

- Bezeroaren beharrak identifikatzea, zer produktuk edo zerbitzuk gogobeteko duten zehazteko, komunikazio-teknikak erabiliz; informazio hori bezeroaren fitxan sartzen da.
- Ilea garbitzeko eta egokitzeko kosmetiko egokiena hautatzea.
- Higiene-teknika aplikatzean, ilearen eta buru-larruazalaren ezaugarrietara eta bezeroak eskatutako zerbitzura egokitzea.
- Ile-egokitzapena egitea maniobrak trebetasunez eginez.

A6: Ile-higienearen prozesuak eta emaitzak ebaluatzea eta zerbitzu-eskaintza optimizatzea.
EI6.1 Higiene- eta asepsia-tekniken aplikazio-prozesuaren eta emaitzen ebaluazio-irizpideak definitzea.
EI6.2 Ematen den higiene-zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen arrazoi teknikoak eta bezero-arretakoak zerrendatzea.
EI6.3 Lortutako emaitzak espero ziren emaitzetara egokitzeko neurriak proposatzea.
EI6.4 Zerbitzuari buruzko kexak bezeroak lokala utzi aurretik jasotzea eta arduradunari jakinaraztea.

## Edukiak

### 1. Garbiketa, desinfekzioa, esterilizazioa eta asepsia.

- Mikroorganismoak eta parasitoak: mikroorganismoen kontzeptua eta motak.
  - Ile-apainketako zerbitzuak eskaintzean transmiti daitezkeen mikroorganismo patogenoak.
  - Ile-apainketako parasitoak. Pedikulosia.
  - Transmisio-moduak eta prebentzio-neurriak.
- Garbiketaren, desinfekzioaren, esterilizazioaren eta asepsiaren kontzeptuak.
- Ile-apainketan erabiltzen diren tresnen, aparatuen eta ekipoen garbitasuna, desinfekzioa, esterilizazioa eta asepsia.
- Ile-apaindegietako arau higieniko-sanitarioak.
- Ile-apainketako garbiketa, desinfekzio eta esterilizaziorako protokoloak.
- Ile-apainketan materialak desinfektatu eta esterilizatzeko erabiltzen diren aparatuak. Ezaugarri teknikoak.
- Desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak: fisikoak eta kimikoak. Ile-apaindegiak desinfektatzeko eta garbitzeko produktuak.
- Lan-ekipoa antolatzea eta zerbitzua eskaintzeko aurkeztea.
- Erabilera bakarreko materialak eta hondakinak desagerrarazteko prozedurak eta ingurumena zaintzeko protokoloa.

### 2 Bezeroaren harrera, komunikazioa eta bezeroari arreta eskaintzea:

- Bezeroa hartzeko eta arreta eskaintzeko teknikak.
- Ile-apaindegietako komunikazio-arau oinarrizkoak.
- Egokitzapen pertsonalerako eta lan-giroa egokitzeko arauak.
- Ile-apainketako zerbitzuen eta produktuen informazio-jarraibideak.

– Bezeroen fitxen ereduak. Datu-baseen oinarrizko ezagutzak.
– Kexa eta erreklamazioen aurreko prozedura-arauak.

3 Ile-apainketako zerbitzuetan bezeroa eta profesionala babesteko neurriak aplikatzea.
– Ile-apainketan arriskuak prebenitzeko profesionala babesteko neurriak.
– Ile-apainketako zerbitzuetan bezeroa babesteko neurriak.
– Bezeroa eta profesionala babesteko ekipoak.
– Profesionalaren jarrera higienikoak, jarreratik eratorritako arriskuak gutxitzeko.
– Bezeroaren jarrera higienikoak, ile-apainketako zerbitzuetatik eratorritako arriskuak gutxitzeko.
– Ile-apainketako zerbitzuetatik eratorritako lanbide-gaixotasun ohikoenak.
– Ile-apainketako zerbitzuetan bezeroek jasan ditzaketen arrisku arruntenak.
– Ile-apainketako zerbitzuak eskaintzean gerta daitezkeen larrialdi-egoeretarako jarduera-arau oinarrizkoak. Larrialdietarako botikina.

4 Ilearen eta buru-larruazalaren egoera eta ilearen higienea zaintzeko zerbitzuetan ematen diren kosmetikoak:
– Ilea: ile-motak eta buru-larruazal motak.
– Ilearen ezaugarriak eta egoera.
– Buru-larruazaleko eta ileko alteraziorik ohikoenak.
– Ilearen zikintasuna: konposizioa.
– Kosmetikoen sailkapena:
  - Xanpuak: kontzeptua, motak, konposizioa eta jarduera-mekanismoa.
  - Ile-egokitzaileak: kontzeptua, motak, konposizioa eta jarduera-mekanismoa.
  - Ile-suspergarriak: kontzeptua, motak, konposizioa eta jarduera-mekanismoa.
  - Produktu emulgenteak: kontzeptua, motak, konposizioa eta jarduera-mekanismoa.
– Produktu-mota desberdinak hautatzeko irizpideak eta erabiltzeko, aplikatzeko eta kontserbatzeko jarraibideak.

5 Ilearen higiene-tekniken aplikazioa.
– Ileko higienearen prozesua:
  - Garbitzeko teknika: faseak eta aplikazioa.
  - Kolorazioetan, dekolorazioetan eta forma-aldaketa iraunkorretan ilea garbitzeko teknikak.
  - Masaje kapilarra: mugimenduak, erabilerak eta kontraindikazioak
– Kosmetikoen aplikazioa eta kontuan izan beharrekoak.
– Ile-egokitzapenaren faseak.
o Ile-higienerako aparatuak.
– Lurruna sortzen duten aparatuak. Ozono-lurruna sortzen duten aparatuak. Erabilerak eta kontraindikazioak. Zuzen erabili, kontserbatu eta mantentzeko jarraibideak.
– Ilearen higienerako tresnak eta baliabide teknikoak: eskuilak, orraziak, pintzak, moldeak, guraizeak, ontziak, tindu-eskuilak, burua garbitzeko konketak eta abar. Zuzen erabili, kontserbatu eta mantentzeko jarraibideak.
– Ile-higienean arriskuak prebenitzeko profesionala babesteko neurriak. Janzkera. Lanerako jarrera higieniko egokiena.
– Ilearen higienea zaintzean bezeroa babesteko neurriak. Janzkera. Ilearen higienea zaintzeko prozesuetarako jarrera anatomiko gomendatuak.

6 Ilearen higiene- eta egokitzapen-prozesuaren ebaluazioa eta kalitate-kontrola
– Ilearen higiene-zerbitzuetako kalitatearen kontzeptua, ebaluazioa eta kalitate-kontrola.
– Ilearen higiene- eta egokitzapen-zerbitzuaren kalitatea definitzen duten parametroak.
– Bezeroaren gogobetetze-maila neurtzeko teknikak.
– Kalitatea ilearen higiene-zerbitzuak aplikatzean eta saltzean.
– Ilearen higiene-zerbitzuak eskaintzean lortutako emaitzak baloratzea eta gertatutako desbideratzeak zuzentzea.

## C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ile-apainketako zerbitzu osagarriak.